

Unescok dio prozesua «adibide eta eredua» dela hizkuntzen defentsan dihardutenentzat

Felix Martik azpimarratu du Iruñean nazioarteko erakundeak jarraitu egingo duela prozesuaren bidea

Kontseiluak antolatutako kanpaina euskarari bai esateko «adibide eta eredua» da mundu zabalean hizkuntza gutxituak salbatzeko lanean ari direnentzat, eta Unesco nazioarteko erakundeak interes handiz jarraituko du hemendik aurrerako prozesua.

Alberto Barandiaran / Iruñea

UNESCOK hizkuntza alorrean duen erakunde Linguapax Nazioarteko Mintegiko lehendakari Felix Martik atzo Iruñean esan zuenez, nazioarteko erakunde honek arretaz begiratuko du atzo sinatutako akordioak ekarriko duen bidea, horrek «irakaskizun interesgarriak» eskain ditzakeelako munduko beste hainbat lurraldetan abiatzekotan dauden antzeko prozesuetan. Martik bere erakundearen elkartasuna eta onespena eskaini zion *Bai Euskarari* kanpainari, eta Xabier Mendigurenekin batera sinatu zuen, Unescoren izenean, akordioa. Gero, Kontseiluko idazkariaren eskutik jaso zuen sinaduraz guztiak biltzen zituen agiria.

Martik hitz batzuk egin zituen akordioa sinatu ondoren, bertaratutako guztien aurrean. Euskaraz esaldi pare bat esan ondoren, frantsesez, eta, batez ere, gaztelaniaz mintzatu zen Linguapaxeko lehendakaria. Hizkuntza



Xabier Mendiguren Kontseiluko lehendakaria Felix Marti Unescoko ordezkariari akordioa ematen.

OSCAR MONTERO

guztiak gizateria osoaren ondusunak direla azpimarratu ondoren, Martik esan zuen haien artean arazo gehien dituztenak direla lagundu beharrekoak. «Handiek nahikoa merkatu ona dute», adierazi zuen.

Unescoko agintariak nabarmendu zuen gizartearen mobilizazioetatik sortzen diren ahaleginak direla gero errotu egiten direnak. Hau horietako bat dela eta administrazioek bakarrik ez dutela ezer egiterik ere esan zuen.

«Horregatik, Unescoren interes handia ikusten diogu euskararen berreskurapenerako egiten ari den ahalegin honi». Martiren arabera, euskara hizkuntza «ertaina» da, bere arazo berezkoak dituen baina, hizkuntza guztiak bezala,

«etorkizunean bizirik jarraitzeko eskubidea» du. «Horregatik nago ni gaur hemen, jakinarazteko nire erakundearen babes eta onespena duzuela». «Prozesu honen ikuskatzaile zuzen eta pribilegiatuak gara»; esan zuen.

◆ Felix Marti ◆ Unesco-ko lekukoa

«Mobilizazio hauek alde dute Historiaren haizea»

FELIX MARTI Unescoko Hizkuntzen alorreko arduraduna da, eta nazioarteko erakunde horretako lekuko gisa hartu zuen parte atzo XXI. Mendeko Akordioaren sinaketa ekitaldian.

■ Nola baloratzen duzu gaur sinatu den akordio sozial hau?

Oso ekitaldi serioa izan da inondik ere, hitzaren zentzu zabalenean, eta parte hartzea oso esanguratsua izan da, batez ere gizartearen oinarrian dauden elkarrekin aldetik. Horregatik, iruditu zitzaidan hizkuntz normalizatzarako prozesuaren adibide eta eredu ona izango zela honako hau munduko edozein herrialderentzat.

■ Zein izan daiteke orain bidea hau paperean bakarrik gelditu ez dadin?


Aipatu izan da hemen euskarari zuzendutako egitasmo estrategikoaren ideia, eta orain hori garatu eta zehaztu behar da. Hau da, giza eragile bakoitzak erabaki behar du bere alorrean nola bereganatu behar duen egitasmo hau, errealki eta etorkizunerako borondatez erabaki behar du zer egin dezakeen bere esparruan, bai merkataritzan, bai irakaskuntzan, bai lantegietan, bai administrazioan eta baita komunikabideetan ere. Hori funtsezkoa da. Komunikabideek ahalegin honekin bat egingo ez balute, arazoa soluzionatzeko abiadura oso mantsoa izango litzateke, eta litekeena da zailtasun larriak izatea. Komunikabideek laguntzen badute, dena errazago izango da.

■ Unescok prozesua arretaz jarraituko duela esan duzu. Izango al da bestelako laguntzarik: teknikoa, azpiegiturakoa...?

Unescok aholkularitza teknikoa eskain dezake, mota honetako arazoak asko direlako munduan barrena. Badugu esperientzia, beraz. Horregatik, zabalik gaude giza taldeetatik etor daitekeen edozein laguntza eskaera bideratzeko.

■ Zein izan daiteke azken mezua? Mundua gero eta globalizatuago, interaktiboago eta masifikatuago dagoelarik, merezi ote dute gisa honetako ahaleginak?

Bai, jakina. Justuki, XXI. mendean modan egongo da aniztasunaren defentsa, eta baita



Felix Marti.

MIKEL UHARTE

hizkuntz aniztasunaren defentsa ere. Mundu zabalean badira ekimen asko hizkuntz txikiak edo ertainak —hau da, euskara-

ren kasua— defenditzeko, eta, beraz, esan dezakegu gisa honetako mobilizazioek alde dutela Historiaren haizea. X